

Errenta Deklarazioa egiteko epea, apirilaren 8tik ekainaren 25era

■ 2001eko Deklarazioak 2000kotik aldaketa gutxi izango ditu, eurotan egingo den aurrenekoa izateaz gain.

ANTTON Market Diputazioako Hazienda diputatuak eta Victor Bravo zuzendariak aste honetan aurkeztu dute Errenta eta Ondasun Aitorpenaren 2001eko kanpaina. Gaur zortzi hasiko da, datoren astelehenean eta ekainaren 25 arte egongo da Errenta egiteko epea zabalik.

2001eko kontuei buruzko Deklarazioak ez du alde haundirik 2000koarekin konparatuta: hori bai, eurotan egiten den aurreneko Deklarazioa izango da, nahiz eta 2001eko diru kontuak pezetetan izan ziren. Haziendako teknikoek transiziokotzat jo dute Deklarazioa eta honako hiru al-

daketa hauek ditu: 1) lan-bonifikazioei dagokien puntua 2.103,54 euro izatetik 2.524 izatera pasako da. 2) Elbarritasunagatik gehiago deduzituko da orain, eta deduzioa elbarritasun graduaren arabera izango da. 3) Sem-alabengatik lehen baino gehiago deduzituko da.

8.000 hernaniarrek
Gutxi gora-behera, 8.000 hernaniarrek egingo dute Errenta eta Ondasun Deklarazioa, iaztik aldaketa nabarmenik ez bada behintzat.
Errenta Aitorpenerako zita eskatzeko: 943-311999 (euskeraz) eta 943-311888 (gaztelaniaz). □

Odola emateko eguna asteartean

ORDUA, 18:30etatik 20:30etara, anbulatorioan.

Orkolagako auzo elkartek, bilera

ORKOLAGAKO *Martxan* auzo elkarteak auzotar guztiak urteko bilerara deitu ditu. Bileran tratatuko diren puntuez gain, auzotarrak eramandako iritzi eta sugerentziek ere izango dute tokia. Bilera astelehenean da, apirilaren 3an, arratsaldeko 20:00etan, CCOO-eko lokalean. □



250-300 lagun inguru bildu ziren Gudarien plazan Aberrri Eguna opatzeko.

ABERRI EGUNA

Udalbiltzak nazio eraikuntza libre eta demokratikoa aldarrikatu du

ABERRI Egunak deialdi eta ospakizun asko izan zituen atzo alderdi abertzaleek eta Udalbiltzako bi sektoreek deituta. Hernanin ekitaldi labur eta xumea egin zen Gudarien plazan, Udalbiltzako Batzorde Eragileak deitu eta Udalaren babesa zuena.

Adierazpena
Mertxe Etxeberria alkateak irakurri zuen Udalbiltzaren adierazpena Udaletxeko balkoitik, Batasunako zinegotziak ondoan zituela. Adierazpenak dionez, aurtengo Aberrri Egunak "leioa aldean alde zabaldu dio euskal gizartearen pluraltasun sozial eta politikoa oinarri hartzen duen nazio eraikuntza libre eta demokratikoari".

Udalbiltza konprometitu da proiektu politiko guztiek bere lekua izango duten eszenario demokratiko eta pake-tsuaen alde lan egitera. □

Pedro Cano kartzelan sartu du epaileak

PEDRO Cano *Pitu* hernaniarra ETARI laguntzeagatik kartzelan sartzeko agindua eman du Auzitegi Nazionalako Olmo epaileak. Hernanitik autobuskada jende izan da Madriden Pedro Canori elkartasuna adierazteko. □

Lujanbio eta Egaña Elur-Txorin

DATORREN larunbatean Maialen Lujanbio eta Andoni Egaña Elur-Txorin izango dira bertsoetan. Bertso bazkaria izango da eta sarrerak 25 eurotan daude salgai, Oindi, Rioja eta Aralar tabernetan. □

EREÑOTZUKO JAIAK

Pelota txapelketarako izena ematea, zabalik

SAN Antoniotan auzokoen arteko pelota txapelketa egiten da Ereñotzun, Ugaldetxoko frontoian. Izena emateko epea zabaldu da eta Irrintzi tabernan apuntatu behar da. Txapelketa binakakoa izaten da, eta 2 modalitateetan: palaz (teniseko pelotaren-kin) eta eskuz. □

Karabelgo Idazlanak 3 liburuxketan

KARABELEKO Belkara auzo elkarteak idazlan lehiaketa antolatzen du urtero ikastolako umeentzat. Orain, 3 urteotako erredakzioak 3 liburuxketan bildu eta banatu egingo ditu Belkarak. □

HERNANI BIDAIAK
Urbietan etorb. 6 - HERNANI
☎: 943 33 00 49 - 33 01 74
e-mail: hernanib@teleline.es
Hernanitik munduko leku guztietara iristen lagunduko dizugu.

ETXE ONENAK, S.A.
GARAJE ITXIAK
'OBLATOS'ETAN
SALGAI
Informatu eta saldu:
☎ 943 33.22.37

Argitarapen honen laguntzaile:
CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

GESTORIA
ZULAIKA
ASESORIA
Kardaberaz 68 - Tel. 943 55 14 94 - 55 19 12 - Faxa 943 55 11 30

Apirilean, ETBko 'Esta es mi gente' programara eta 'Car' kotxeetan ibiltzera

■ Telebistara asteazken honetan dihoaz, apirilak 3an.

GAZTE Txokoak apirileko ekintzak aurkeztu ditu. Aste honetan, adibidez, hiru irteera egingo dituzte. 1) Etzi, telebistara dihoaz esta *Es mi gente* programara, ikusle bezala; 2) Ostiralean, Olaberriara *Car*-etan

ibiltzera; 3) eta larunbatean, bizikletan egunpasa egingo dute. Aurreko hilabeteetan bezala, tailer asko egingo dituzte: sukaldaritza tailerra, pintzekin esku lanak, pultsera tailerra... Bestelako ekintzak ere bai:

ordenagailu txokoa, gazte zinema, *pin-pon* txapelketa...

Aldez aurretik izena ematea *Car*-etan eta bizikletan ibiltzera joateko aldez aurretik izena eman beharra dago. □

'Agenda 21' logotipo lehiaketarako 21 proposamen aurkeztu dira

■ Aurkeztutako logotipo guztiekin erakusketa egingo da Biterin ■ Gero, jendeak aukeratu du logotiporik onena.

AGENDA 21 plangintza ingurugiroa zaintzeko plana da, Udalak bultzatzen duena. Orain, logo-lehiaketa egiten ari dira logotipoa behar dutelako, Hernaniko *Agenda 21*en ikurra

izango dena. Martxoaren 22 arte zeukan jendeak aukera proposamenak egiteko eta 21 logotipo presentatu dituzte.

Logo onena zein den aukeratu behar dute orain eta hori

kaleko jendeak egitea pentsatu dute. Horretarako Biterin jarriko dituzte 21 logoak apirilaren 10etik 28ra eta jendeak aukeratu beharko du politena zein den, bertara joanda. □

Eliza beteta bukatu dira Aste Santuko ospakizunak

JUAN Bataiatzailea parrokia bete egin zen Pazko Igandean, Jesus gurutzean hil eta piztu dela ospatzeko. Juan Bataiatzailea parrokian ez ezik, Floridako San Jose Langilea parrokian eta Ereñotzuko San Antonio parrokian emandako mezarekin bukatu ziren atzo Aste Santuko ospakizun erlijiosoak.

Asteartetik igandera

Aste Santuko ospakizun erlijiosoek pisu handia dute Hernanin ere eta jende asko mugitzen dute. Berez, Ostegun Santuan hasten dira mezak, baina, astearte eta asteazkenean ere penitentzia komunitarioak egiten dira hiru parrokietan.

Aurten ere, Gurutz-bideak bilduko zuen jenderik gehiena, goiz giro ederrak lagunduta. □



Pazko Igandeko meza, atzo, Juan Bataiatzailea parrokian.



Hernaniko Kronikaren laguntzaile:

ORAUNE PROMOCIONES

PELOTA

Esnalek egurra Milikuari: 22-0, eta klasifikatuta, seguruena

■ Bigarren mailako txapelketan aukera handiak ditu.

ESNALEK bigarren mailako txapelketarako lekua aseguratuta samarra dauka, atzo Milikuari irabazita. Besagain enpresatik 3 sartzen dira txapelketan eta Esnal izango da bat, oraindik konfirmatu ez bada ere.

Paseotxo Luzaiden

Atzoko partiduak pelotari bakarra izan zuen: Esnal. Hernaniarrak 22 eta 0 irabazi zion

Milikuari. Bederatzi sake sartu zizkion eta gainontzeko tantuak *sake-rematean* egin zituen: sakea ahal zuen luzeena eta errematea txokoa goxo-goxo. Milikua ez zen bakar batera ere iritsi eta bukaerako etsi egin zuen.

Atzokoa eta gero animatuta dago Esnal txapelketarako, "aurten izan dezaket bizitzako aukera txapelketa irabazteko".

Zabala-Aizpitarte eta Gurrutxaga Gipuzkoako txapeldun

■ Bi txapel eta 2garren 3garren eta 4garren postu bana.

HERNANIKO pelotari gazteek paper bikaina egin dute jokatu berri dituzten txapelketetan. Gipuzkoakoan, eskuz binaka, infantiletan, Zabala eta Aizpitartek irabazi dute 18 eta 8 *Aurreraren* kontra; hirugarren, Grajal eta Apezetxea gelditu dira. Trinketean, kadeteetan, Gurrutxaga da Gipuz-

koako txapelduna, Ramuntxori 30 eta 9 irabazita. Trinketean, baita ere, baina jubentzetan, Elizalde bigarren gelditu da finala 35-10 galduta, Behar Zanaren kontra. Azkenik, Uda-berri Txapelketan, Arrieta eta Gorrotxategi 4garren postuan gelditu dira, Illunperen kontra 16 eta 22 galduta. □

ZERBITZUAK

TELEFONOAK Taxiak: 943 550093 Udaltzaingoa: 943 333288 DYA: 943 464622 Anbulatorioa: 943 006666 Jokalari anonimoak 943 331103	FARMAZIAK Egunez: Etxebeste Elkano 2 ☎ 943 552087 Gaeuz: Elizondo Andoain. Zumea 30 ☎ 943 592629 ASTEARTEA Egunez: Bilbao-Sagas. Urbieta 7 ☎ 943 552941	Gaeuz: Bilbao-Sagas. Urbieta 7 ☎ 943 552941 ASTEAZKENA Egunez: Gomez Kale Nagusia 15 ☎ 943 554892 Gaeuz: Gomez Kale Nagusia 15 ☎ 943 554892
---	---	---

ETXEAK ETA LOKALAK

REI INMOBILIARIA

Ipizua 1 - Tel: 943 33 61 61

ARANO: Kaxkoan, terreno edifikagarria. 75.000 euro.
HERNANI: Kaxkoan. Alimentazio denda, erabat hornitua. Diru sarrerak erakus daitezke.
HERNANI: Etxeberri. 40m2ko lokala, entreplantarekin. 36.061 euro.
HERNANI: Eskuera handia dela-eta, salmenta eta alokailurako pisok eskatzen dira. Balorazioa dohain.

INMO F3 INMO F3

Inmobiliaria RED Inmobiliaria
 Kardaberaz 49 - Tel: 943 33 60 66

PERKAIZTEGI: Sukaldea, 3 gela, saloia, 2 koton, trasteroa eta garajea. **Aukera-aukerakoa.**
MAÑE Y FLAQUER: Sukaldea, saloia, 3 gela, 2 koton eta trasteroa. **Oso eguzkitsua.**
URNIETA: Sta. Leocadia. Sukaldea, saloia, 2 gela, komona eta trasteroa. **Oso egoera onean.**
PABELOIAK: Zona onean. Eraikuntza berriak (azkenekoak).

WENDAU

Kardaberaz 44 - Tel: 943 330 443 - 943 330 483
www.innomendaur.com

HERNANI: Zentroa. 3 gela, saloia, sukaldea, komona. Igogailua, kafeakzioa, Ezin hobeto. www.innomendaur.com.
HERNANI: Iturregi kalea. 3 gela, saloia, sukaldea, 2 koton, Igogailua. Kafeakzioa. Trasteroa. Ezin hobeto. Garaje itxia. www.innomendaur.com.
ERGOBIA: Aukera. Jatetxe-taberna. 180m2. Duela gutxi berritua. Martxan dago. www.innomendaur.com.

HERNANI FINKAK

Txirrita 3 - Tel: 943 33 01 44

HERNANI: 3 gela, sala, sukaldea, komona. 2 balkoi. Egoera onean. Trasteroa. 143.642 euro.
HERNANI: Halla. 3 gela, saloi-jangela, sukaldea, komona, aseoa. Oso eguzkitsua. Trasteroa. Igogailua. 154.460 euro.
HERNANI: Berri samarra. 113 m2, *Halla*, 3 gela, saloi handia, sukaldea, komona, aseoa. Berogailua. Trasteroa. Berritua.
HERNANI: Apartamentu berri samarra. Gela 1, sala, sukaldea, komona, trasteroa.

ITURAIN & ASOC

Servicios Inmobiliarios Integrados
 CONSULTING GROUP
 ELKANO 13 beheka - Tel 943 33 33 96

URNIETA: Berritua, kanpokaldera ematen du eta eguzkitsua. Sala, 2 gela, sukaldea eta komona. 23.500.000 pta. (141.238 euro).
HERNANI: Kanpora ematen du, eguzkitsua. Sala, 3 gela, sukaldea eta komona. 21.500.000 (129.218 euro).
ANTZIOLA: Sala, 3 gela, sukaldea eta komona. Berrituekoa. 23.500.000 (141.238 euro).
ZENTROAN: Saloia, sukalde handia, 3 gela, komona eta igogailua. 32.000.000 (192.325 euro).



IRAGARKI MERKEAK

Etxeko lanak egiteko norbaiten bila nabil. Interesatuek deitu: 653 73 61 96
 Garajea erosiko nuke Latsunbe auzoan. Interesatuek deitu: 943 33 05 16